SAGARDOA route

gure jatorria

GIPUZKOAKO SAGARDOGILEEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE SIDRA NATURAL DE GIPUZKOA



# ZERBITZUEN KATALOGOA

SAGARDOA route

gure jatorria

# AURKIBIDEA


## 1. GESTIO OROKORRA

AECOC

APPCC

DIRU-LAGUNTZAK

ECOVIDRIO

ENPLEGUA

EROSKETA ZENTRALA

ESPORTAZIOA

ERANTZUNKIZUN ZIBILA

FAKTURAZIOA

FORMAZIOA

GORENAK

JATORRI DEITURA

MAKINA

ORDEZKARITZA

SEKZIOAK

## 2. PROMOZIOA eta KOMUNIKAZIOA

AZOKAK

PRENTSA KUDEAKETA

SARE SOZIALAK

WEB

EKITALDIAK

## 3. BIDAI AGENTZIA

ESPERIENTZIEN SALMENTA

GIDA ZERBITZUA

ONLINE DENDA

ONLINE MENUAK

## FUNTZIONAMENDUA

# 1. GESTIO OROKORRA



## AECOC – BARRA KODEAK

**ZERBITZUA** AECOC barra kodeak

**ARDURADUNA** Ana Larred

**LANERAKO MODUA**

- Sagardogileek barra kodea jartzeko eskaera egiten diote elkarteari. Honek, eskaera orria jaso eta sagardogileari bidaltzen dio.
- Datu ekonomikoak eskatzen dituztenez, sagardogileek betetzen dute orrialdea eta ondoren elkarteak bidaltzen du AECOCera.

**MULTZOA** Zerbitzu orokorrak

## APPCC

**ZERBITZUA** APPCC

**ARDURADUNA** Olatz Mitxelena

**LANERAKO MODUA**

Zer da APPCC
- Análisis de Peligros y Puntos de Control Crítico. Osasun sailak derrigortzen gaituen neurketa sistema bat da. Sistema hau ostalaritzarentzat edo bodegarentzat izan daiteke. Elkarteari dagokionean, bodegaren protokoloa aurrera eramateko dokumentazio osoa dugu.

Nork egin behar du APPCC
- Oraindik guztiz derrigorra ez bada ere, sagardogile guztiei eskatuko diete pixkanaka. Beraz, zenbat eta lehenago egina izan, orduan eta hobe.

Dokumentazioa
- Elkarteak eskuragarri du bere bazkideentzat APPCC aurrera eramateko dokumentazio osoa
- Material honen barruan sartzen dira protokoloari dagozkion dokumentuak

Nola lortu?
- Elkartekideak edozein momentutan jar daitezke gurekin harremanetan. Hitzordua finkatu eta dokumentazioa osatzen hasiko gara. Ondoren, jarraipena egingo dugu hiru hilabeteka.

**MULTZOA** Zerbitzu orokorrak

## DIRU–LAGUNTZAK

**ZERBITZUA** Sagardogileen lor ditzaketen diru–laguntzak

**ARDURADUNA** Olatz Mitxelena

**LANERAKO MODUA**

Zein diru laguntza ditugu?

- SAGARRONDOAK LANDATZEKO LAGUNTZAK
  *GFAren laguntza da. Apero txikiak sartzen dira bertan eta baita landaketa berri dagokion prozesu osorako laguntzak ere.*
- LEADER LAGUNTZA
  *Inbertsioak dira. Kasu honetan, ezinbestekoa da eskatu aurretik HASI EZ IZANAREN AKTA (Acta de no inicio) sinatzea. Laguntza hauek, ordea, ruralidadearen arabera ematen dituzte, segun eta zein den sagardotegiaren kokapena aukerak asko aldatzen dira.*
- CTP
  *Produktu turistikoen komertzializazioa eta ekitaldien antolakuntza (proiekzio internazionala badute). Ostalaritza aktibitatean altan emanda dauden Sagardogileek eskatu ahal izango dute. Elkarteak ere eska dezake.*
- EMET
  *Turismo enpresen lehiakortasuna hobetzeko laguntzak (webguneen hobekuntza, denda birtualak, efizientzia energetikoa lortzeko laguntzak, konektibitatearen hobekuntza...). Gutxieneko inbertsioa 5.000 €koa izango da, eta Ostalaritza aktibitatean altan emanda dauden sagardogileek eskatu ahal izango dute. Elkartearen Bidai Agentziak ere eska dezake.*
- LEHIATU SUSTAPENA
  *EAEtik kanpo promozio ekintzak aurrera eramateko laguntzak dira.*
- LEHIATU BARRIA INBERTSIOAK
  *Hau da diru–laguntza handienetakoa: industria agroalimentariorako makinaria, obra zibilak, komertzializaziorako inbertsioak... hori dena sartzen da hemen barruan.*
- KALITATEA
  *Lehen aldiz kalitatezko produktu bat ekoizten denean ematen den laguntza da.*

Nola eska daitezke?

- Elkarteak bidaltzen ditu deialdiak.
- Laguntzaren inguruko informazio gehiago behar duenak elkartera deitu behar du eta bere beharra jakinarazi

**MULTZOA** Zerbitzu orokorrak

## ECOVIDRIO AITORPENA

**ZERBITZUA** Ecovidrio aitorpena

**ARDURADUNA** Ana Larred

**LANERAKO MODUA**

- Urtero egin behar da.
- Sagardogileek deklaratu behar dituzte zenbat botila berziklatu eta zenbat berri saltzen dituzten merkatuan.
- Epea otsailaren 28an bukatzen da, baina aitorpena egiteko aukera urte osoan zehar dago.

**MULTZOA** Zerbitzu orokorrak

## EROSKETA ZENTRALA

**ZERBITZUA** Momentuan dagoen sektorearen beharra asetzeko taldeko erosketak egiten dira.

**ARDURADUNA** Ana Larred

**LANERAKO MODUA**

- Sagardo botila hutsak VIDRALA taldearekin: 0,239 € + BEZ (2020ko prezioa)
- Sagardo kaxak ORBELAN taldearekin
  - *999 kaxa -> 6.5 €/bakoitza*
  - *1000 - 2999 kaxa -> 6.1 €/bakoitza*
  - *3000 edo gehiago -> 5.85 €/bakoitza*
- Intxaurrak (hala behar denean)
- Sakakortxosak (hala behar denean)
- Edalontziak (hala behar denean)
- Muxukoak
- Gel hidroalkoholikoak, eskularruak, maskarillak...

**MULTZOA** Zerbitzu orokorrak

## ENPLEGUA

**ZERBITZUA** Lan enplegua

**ARDURADUNA** Ana Larred

**LANERAKO MODUA**

- Elkarteak ondorengo lanetan lagunguko du:
  - *Kurrikulunak bilatzen*
  - *Lanbiderekin harremanetan jartzen*
  - *Txotx garaian eta sagar garaian, lan poltsa sortzen*
  - *ETT enpresekin lan harremanak eta orduko kostuak hobetzen*

**MULTZOA** Zerbitzu orokorrak

## ESPORTAZIOA

**ZERBITZUA** Esportaziorako behar den dokumentazioa osatzeko informazioa

**ARDURADUNA** Olatz Mitxelena

**LANERAKO MODUA**

Elkarteak momentu honetan ondorengo informazioa eskaini dezake:

- EEBBetara esportatzeko dokumentazioa
- Europara Esportatzeko dokumentazioa
- Japonera esportatzeko dokumentazioa
- Informazio orokorra ere bideratzeko aukera
- Behar diren dokumentuak eskatzeko laguntza

**MULTZOA** Zerbitzu orokorrak

## ERANTZUNKIZUN ZIBILA

**ZERBITZUA** Erantzunkizun Zibila (Responsabilidad Civil)

**ARDURADUNA** Ana Larred

**LANERAKO MODUA**

- Urtero egin behar da. Martxoak 1etik otsailak 28ra arte.
- Ibañez Brockerrekin dugu hitzarmena.
- Sagardogileek egin nahi badute elkartera deitu behar dute epe horretan, guk mezua bidali ondoren datak jakinaraziz.
- 2020ko tarifa 190€, iaz baino 4€ gehiago.

**MULTZOA** Zerbitzu orokorrak

## FAKTURAZIOA

**ZERBITZUA** Fakturak

**ARDURADUNA** Ana Larred

**LANERAKO MODUA**

Elkarteak ondorengoa egiten lagunduko die sagardogileei:

- Albaranak
- Fakturak
- Ordainketak eta kobratzeak

**MULTZOA** Zerbitzu orokorrak

## FORMAZIOA

**ZERBITZUA** Formazioa

**ARDURADUNA** Ana Larred

**LANERAKO MODUA**

- Urtean zehar ikastaro pare bat egiten dira Elkarteak antolatuta: DYA eta elikagaien manipulatzailearenak.
- Beste ikastarorik antolatu behar bada, Fraisororekin edota Hazirekin antolatzen dira.
- Horretaz gain, aukera dago hizkuntzen ikastaroak ere elkartetik egiteko.
- Elkarteak maiatzan eta azaroan mailing egingo du formazio beharrak zein diren jakiteko.

**MULTZOA** Zerbitzu orokorrak

## GORENAK

**ZERBITZUA** Gorenak marka ekoizteko autokontrol zerbitzua

**ARDURADUNA** Olatz Mitxelena

**LANERAKO MODUA**

- Gorenak marka ekoizteko autokontrola egiten du Elkarteak:

  *Dokumentazioa osatzen lagundu*
  *Muestreoa bildu eta Hazirekin kontrastatu*
  *Gaiaren inguruan dagoen edozein eskaera bideratu*

**MULTZOA** Zerbitzu orokorrak

## JATORRI DEITURA

**ZERBITZUA**

Jatorri Deitura Kontseiluan ordezkaritza Gipuzkoako Sagardogileen Elkartearen bidezkoa da.

**ARDURADUNAK**

Hur Astarbe, Ainara Otaño eta Olatz Mitxelena

**LANERAKO MODUA**

- Elkarteak Euskal Sagardoa Jatorri Deitura Sekzioa du martxan
- Elkartea da sagardogileen ordezkaria kontseiluan
- Elkartea da Euskal Sagardoa Jatorri Deiturako partaidea
- Elkartea arduratzen da bitartekaritza lana egiten sagardogileen eta kontseiluaren artean
- Sekzioan aipatu direnak Kontseilura helarazteko konpromisoa

**MULTZOA**

Zerbitzu orokorrak

## ORDEZKARITZA

**ZERBITZUA**

Elkartekideak talde baten parte izango dira, eta talde horri dagokio sektorearen interesak defendatzea, sinergiak bilatzea, ordezkaritza ematea... administrazioaren aurrean.

**ARDURADUNAK**

Zuzendaritza junta eta hiru langileak

**LANERAKO MODUA**

- Sagardogileak talde baten partaide izango dira
- Talde hori sektorearen interesak defendatzeko sortua izan da
- Urteetan zehar, eboluzioa izan du, eta egun, elkartekide denak ondorengoa lortuko du partaide izatearekin:

  *Sektorari dagokion informazio eguneratua*
  *Bitartekaritza behar duenarekin: bere herriko udalarekin, bezeroekin, probeedorekin, administrazio publikoarekin...*
  *Sektorari dagozkion arazoen kudeaketan erreferentziazko talde bat*
  *Elkarteak dituen sinergiak baliatzeko aukera: osteleritza elkartearekin, beste sektoreko elkarteekin, euskal sagardoarekin, Bidai Agentziekin...*

**MULTZOA**

Zerbitzu orokorrak

## MAKINA

**ZERBITZUA**

Sagar biltzeko makinaren kudeaketa

**ARDURADUNAK**

Olatz Mitxelena – Ana Larred

**LANERAKO MODUA**

Zertan datza?

*7 sagardogileren artean daramate makinaren zerbitzua egun. Sekzio honetan erabakitzen dira bilketa txandak.*

Sagar biltzeko makina

*Foru Aldundiaren laguntza baten bidez ekarri zen, eta 7 sagardogilek erabaki zuten bertan inbertsioa egitea.*

**MULTZOA**

Zerbitzu orokorrak

**PREZIOA**

Dagoeneko eginda dagoen inbertsioa.

## SEKZIOAK

**ZERBITZUA**

SEKZIOAK ZER DIRA?

Interes komunak dituzten sagardogileak biltzeko sortzen dira sekzioak

Hauek dira egun elkarteak dituen sekzioak:

*SAGARDOA ROUTE*
*MAKINA*
*EUSKAL SAGARDOA*
*ASTIGARRAGAKO SEKZIOA*
*SAGARDO EGUNAK*
*ZUMOA*

Sekzio hauetan lantzen dena zuzenki lehendakariarekin eta zuzendaritza juntarekin kontrastatzen da.

# 2. PROMOZIOA ETA KOMUNIKAZIOA



## AZOKAK

**ZERBITZUA** Elkartearen ordezkaritza azoketan

**ARDURADUNA** Olatz Mitxelena

**LANERAKO MODUA**

Produktuari dagozkionak
- ALIMENTARIA – GOURMET
- Azoka hauetan elkartekideek hartzen dute parte normalean, elkarteak, hala behar badute, antolakuntzan laguntzen die.

TURISTIKOAK
- Fitur
- ITB
- IBTM
- Frankfurt

* Kasu hauetan, elkartea joango da bertara, normalean Basquetour edo SSTurismoren eskutik.

**MULTZOA** Promozioa eta komunikazioa

## SARE SOZIALAK

**ZERBITZUA** Sagardoa Routen Sare sozialen kudeaketa

**ARDURADUNA** Olatz Mitxelena

**LANERAKO MODUA**

Elkarteak ondorengo sareak ditu egun:

- TWITTER
- INSTAGRAM
- FACEBOOK
- Sare Sozialen estrategia enpresa baten bidez kudeatzen dugu. Honetarako, komunikazio plan batean garapena ere egina daukagu, publiko mota ezberdinak identifikatuz eta edukia ikusiz. Horretarako, post ezberdinak igotzen ditugu astean zehar.
- Sare sozialen estrategia lantzeko zerbitzua martxan du Elkarteak sagardogileentzat

**MULTZOA** Promozioa eta komunikazioa

## PRENTSA KUDEAKETA – EKITALDIEN ANTOLAKUNTZA

**ZERBITZUA** Sagardogile batek hala behar duenean, prentsa kudeatzea edota ekitaldiak antolatzea

**ARDURADUNA** Olatz Mitxelena

**LANERAKO MODUA**

- Prentsa oharra idatzi
- Prentsa kudeatu: aurretik, egunean eta ondoren.
- Datu basea ibili
- Ekitaldia antolatzen lagundu

**MULTZOA** Promozioa eta komunikazioa

## WEB

**ZERBITZUA** Sagardoa Route webgunea

**ARDURADUNA** Amaia Zubeldia

**LANERAKO MODUA**

- sagardoa.eus webgunea da Elkartearen erakusleihoa
- Ondorengo zerbitzuak eskaintzen ditu:
- Erreserba zentrala (menuak eta esperientziak)
- Agenda
- Bloga
- Tiket edo sarrera salmenta
- Online denda
- Enpresentzako zerbitzuak
- Marketing estrategia: webgunearen posizionamendua lantzen da.

**MULTZOA** Promozioa eta komunikazioa

## EKITALDIAK

| | |
|---|---|
| ZERBITZUA | Ekitaldien antolakuntza |
| ARDURADUNA | Olatz Mitxelena |
| LANERAKO MODUA | — Donostiko Sagardo Eguna<br>— Ordiziko Sagardo Eguna<br>— Sagardo Apurua<br>— Sagardo Txapelketa Herrikoia<br>— Txomin Parrilla?<br>— Sagardo Egunak<br>— Kilometroak |
| MULTZOA | Promozioa eta komunikazioa |

**DONOSTIAKO SAGARDO EGUNA**

Iraileko lehen asteburuan izaten da eta elkartekide guztiek dute parte hartzeko aukera. Gipukoako Sagardogileen Elkartearen ekitaldi historikoa da hau. Sagardo botilaren promozioa da nagusi.



**ORDIZIKO SAGARDO EGUNA**

Ordiziko Udalarekin elkarlanean antolatzen du Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak. Bertan ere elkartekide guztiek dute parte hartzeko aukera baina Goierrialdeko sagardogileei lekua lehenesten diegu.




**SAGARDO APURUA**

Elkarteak antolatzen duen ekitaldi berrienetakoa da. Igartubeiti baserriaren berreraikuntza Donostiaren bihotzean, boulevardean. Sagardoa ala izeneko txalupa zaharrean jaisten da Urumea ibaian barrena, eta sagardo berriaren iritsiera ospatzen da abenduko zubian. Bertan, sagardoa botilan dastatzeko aukera dago eta baita txotxetik ere. Ekitaldia osatzeko hainbat eragileren elkarlana bultzatzen da.



**SAGARDO TXAPELKETA HERRIKOIA**

Irailean zehar finalaurreko eta finalarekin osatzen da Euskal Herriko Sagardo Txapelketa Herrikoia. Berezitasun nagusia du otordu baten bueltan egiten dela eta jendeak bere iritziaren arabera baloratzen duela sagardo bakoitza. Euskal Herriko Sagardogile guztiek dute parte hartzeko aukera, eta ekitaldi ibiltaria da.



**TXOMIN PARRILLA**

Txomin Parrilla, Basatxerri eta Lurlan elkarteekin lankidetza hitzarmena du Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak. Honen bidez, Txomin Parrillak konpromisoa du Jatorri Deitura duten sagardoak parte hartzen duen ekitaldietara eramateko. Elkarteak, halaber, txandatuz bidaltzen ditu sagardoak ekitaldi hauetara.



**SAGARDO EGUNAK**

Elkarteak bitartekari lana egiten du Euskal Herriko 82 sagardo egunetan. Hauekin denekin bilera erronda bat egin ondoren, sagardoaren mesedetan baldintzak zorroztu ziren eta hitzarmen eredu bat sortu. Oraindik ere bide luzea dago gai honetan, ekitaldi hauen bidez sagardoa balorean jar dadin. Ez bada halakorik egiten, ekitaldi hauek beren funtsa galduko dute.



**KILOMETROAK**

Euskal Herriko Sagardogileen federazioak lankidetza hitzarmena du Ikastolen Elkartearekin Euskal Sagardoa egon dadin kilometrotan. Kudeaketa elkartearen bidez egiten da eta sagardotegiak txandatuz eramaten dira.

# 3. BIDAI AGENTZIA SAGARDOA ROUTE










## ESPERIENTZIEN SALMENTA

**ZERBITZUA**: Esperientzien salmenta

**ARDURADUNA**: Amaia Zubeldia

**LANERAKO MODUA**:
- Sagardoa Routeko esperientzien salmenta Prestashoparen bidez, modu ziurtatu edo pribatuan
- Sagardotegien esperientziak Sagardoa Routeko webgunean eta katalogoan sartzea
- Sagardotegien esperientziak saltzea azken bezero eta bidai agentziei
- Sagardotegiaren webgunean esperientzia sartzeko aukera Elkarteko prestashoparen bidez
- Esperientzien salmenten kudeaketa osoa: erreserba, gida zerbitzua eta fakturazioa
- Aholkularitza orokorra sektore turistikoan eta turismora egokitzea
- Elkarte bidezko salmentetan sagardotegietako  bisita gidatuen kudeaketa
- Sagardotegien esperientzien definizioan aholkularitza
- Bezeroen datuen bilketa eta estatistikak

**MULTZOA**: Bidai agentzia

**PREZIOA**: Salmentako komisioa ( %10)

## GIDA ZERBITZUA

**ZERBITZUA**: Gida zerbitzua

**ARDURADUNA**: Amaia Zubeldia

**LANERAKO MODUA**:
- Elkarteko gidak sagardotegietan bisitak edo dastatzek 4 hizkuntzetan egiteko aukera
- Sagardotegiaren gidoiaren lanketa hizkuntza ezberdinetan
- Gidaren formazioa sagardotegian bisita egiteko garaian
- Gida zerbitzuaren kudeaketa osoa: erreserbak, anulazioak eta fakturazioa

**MULTZOA**: Bidai agentzia

**PREZIOA**: Elkartekideak: Bisita luzea 60€+BEZ / Bisita motza 40€+BEZ

* EZEZTAPEN POLITIKAK:
- Ordaindutakoaren %100 itzuliko da bisitaren eguna baino 24 ordu lehenago egiten diren ezeztapenetan.
- Ez da ordaindutako dirurik itzuliko ezeztapena azken 24 orduetan egiten bada.

## ONLINE DENDA

**ZERBITZUA**: Online denda / botila salmenta

**ARDURADUNAK**: Amaia Zubeldia eta Ana Larred

**LANERAKO MODUA**:
- Sagardo botila salmenta sagardoa.eus webguneko prestashoparen bidez
- Sagardotegiaren webgunean online denda sartzeko aukera Elkarteko prestashopa erabiliz
- Produktuen argazkiak, definizioak eta eguneratzeak
- Produktuen promozioa eta salmenta ekintzak nazio mailan
- Salmenten kudeaketa osoa: eskaeraren gestioa, stockajea eta fakturazioa
- Bezeroen datuen bilketa eta estatistikak

**MULTZOA**: Bidai agentzia

## ONLINE MENUAK

**ZERBITZUA**: Internet bidezko menuen salmenta

**ARDURADUNAK**: Amaia Zubeldia eta Ana Larred

**LANERAKO MODUA**:

ONLINE MENUAK
- Menuen erreserben gestioa sagardoa.eus webgunearen bidez Cover Manager programarekin
- Sagardogilearen informazioa sagardoa.eus webgunean eguneratu eta itzulpenak egitea
- Sagardogilearen kupoak Coverrean ireki eta ixtea
- Menuen erreserben gestioa nork bere webgunean Cover Manager programarekin
- Erreserben kudeaketa orokorra Cover Managerrean (anulazio eta aldaketak)
- Aholkularitza orokorra sagardotegien erreserben gestioa hobetzeko
- Fakturazioa eta kontabilitatea Elkarte bidezko erreserbetan (Ana ere)
- Informeak, bezeroen datuen bilketa eta estadistikak
- Sagardotegiaren promozioa webguneko erreserba zentralean
- Sagardotegiaren ekitaldien promozioa webguneko agendan
- Sagardotegiaren promozioa sare sozialetan
- Sagardotegiaren promozioa Elkarteko euskarrietan (mapa eta flyerra)
- Sagardotegiaren promozioa Ekitaldietan

ENPRESA KUDEATZEKO ZERBITZU INTEGRALA
- Cover Managerraren aholkularitza sagardotegiaren sisiteman inplantatzeko
- Salmenta puntuaren aholkularitza Asisman enpresaren bidez
- ERParen aholkularitza Asisman enpresaren bidez

**MULTZOA**: Bidai agentzia

**PREZIOA**: 2€/pax komisioa salmentako (gure webgune bidezko erreserbatan)

## FUNTZIONAMENDUA

### GIPUZKOAKO SAGARDOGILEEN ELKARTEA

**ELKARTEKIDEEK 3 ZERBITZU MULTZOAK JASOKO DITUZTE**

175 €/Hilabetean, dena sartzen da, eta lehen bi urteetan coverraren erabilera ere.

**COVER MANAGER**

Elkartekideek 2022ko urtarriletik aurrera hasi beharko dute beren kabuz ordainketa egiten, ordura arte, elkarteak egingo du ordainketa.

### BIDAI AGENTZIA – SAGARDOA ROUTE

**SAGARDOA ROUTI DAGOZKION ZERBITZUAK SAGARDOGILE PROFESIONAL GUZTIENTZAT IZANGO DIRA**

**SAGARDOGILE GUZTIEK BEREN FITXA IZANGO DUTE www.SAGARDOA.eus WEBGUNEAN
ETA SAGARDOA ROUTEN MAPAN ERE AGERTUKO DIRA**

**ORDAINKETAK**

150 €/urtean: Zerbitzu bat
250 €/urtean: Bi zerbitzu
300 €/urtean: Hiru zerbitzu

**GIDA ZERBITZUA**

70 €/ zerbitzua luzea
50 €/ zerbitzua motza

Cover Manager – Erreserba motorra
Erreserba motorra bere gestio tresna moduan nahi duenak: 119 € + BEZ hilabetean
Erreserba motorra sagardoa.eus atarian nahi duenak: 10 € + BEZ hilabetean

- Erreserba bakoitzeko komisioa, 2,5 €/pertsonako
- Esperientzia/paketeetan komisioa, % 15

**ERP – Gestio Integrala *ICG Manager* programaren bidez**

Sagardogile bakoitzak ordaindu beharko du hasieratik, baina taldeko prezioa jasotzeko aukera izango dute.

GIPUZKOAKO SAGARDOGILEEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE SIDRA NATURAL DE GIPUZKOA

**KONTAKTUA**

Sagardoa Route

(Gipuzkoako Sagardogileen Elkartea)

943 336 811

info@sagardoa.eus

Nabarra Oñatz 7 behea. 20115 Astigarraga

www.sagardoa.eus

